

Eulalia Blancoren hitzaldia

2006an Kataluniako Kultur Industrien Institutuaren Antzerkia, Musika eta Ikus Arteen zuzendaria izan zen.

“POLITIKA KULTURALAK ARTE ESZENIKOETAN”

"Egunon, bon día. Hitzaldiari hasiera emateko, azaldu nahi nuke zer den Instituto Catalán de Industrias Culturales (ICIC) delakoa (Kultur Industrietarako Kataluniako Institutua); izan ere, ikusiko duzueenez, nik azalduko dizuedana da Autonomi Gobernutik egiten ari diren kultura politiken zati bat. Eta azaldu beharra daukat, hain zuzen ere, duela urte batzuetatik hona, Autonomi Gobernuak benetan aldaketa handia egin duelako bere egituran. Beraz, batzuek ezagutzen duzue egitura hori eta aurreko politikak ere bai; orain, ordea, oso bestelako antolakuntza batez formulatuta dago eta kultur proiektuak hirugarren erakunde horretatik zaintzen dira.

- Autonomi Gobernuaren Kultura Saila. Kataluniako Generalitatea.

Gaur egun daukan antolakuntza ondare arlokoa da, -ez naiz zehazki hori komentatzen hasiko-, baina funtsean, ondare sisteman egiten du lan, bereziki, museoen arloan, eta bere gain du ekipamenduren baten kudeaketa ere. Herri-kultura eta kultura tradizionalari dagokionez, kultura tradizionalako ekimenak lantzen ditu gehienbat, eta batez ere herri-kulturako talde eta elkarteekin ditu harremanak, gai hori indar handikoa baita Katalunian: Castellers, herri-dantzak, ateneoen eta herri kulturako guneen kudeaketa.

Zenbait ekipamenduren kudeaketa dauka bere gain, hala nola Antzoki Nazionala, Kataluniako Biblioteka Nazionala eta abar; horrez gain, arlo artistikoetarako hiru egitura ditu: ICAC izeneko bat, ICIC izeneko beste bat eta Zuzendaritza Nagusia deitzen den beste bat. Egitura horiei buruz hitz egingo dut.

ICAC erakunde sortu berria da, hots, Sorkuntza Garaikideko Institutua. ICACen helburua sorkuntza da, eta horixe lantzen du gehienbat. Batez ere sortzailearekin egiten du lan.

ICIC delakoa Kultura Industrien Kataluniako Institutua da. Arlo honetan, batez ere ekoizpenean ari gara lanean, eta enpresak dira gure solaskideak. Jakina, ekoizpenaren arloan sorkuntza eta hedapena ere badaude, baina oinarritzko xedeak horietatik dira.

Zuzendaritza Nagusia zirkuitu publikoetan ari da lanean. Horrek esan nahi du solaskidetza udalekin daukala.

Ekimen bat hasi berri edo azaleratzen dagoenean, sormen-lan horiek ikerketa eta bilaketa mailan egoten dira oraindik; ez dute zirkuitu zehatzik, arte-sorkuntzan sartzeko zorian daude; pertsonak dira, proiektuak dira. Ekimen horiek Sorkuntza Garaikideko Institutuarekin hasten dira harremanetan. Kultur ekimen horiek beren zirkuitu handiagoa edo txikiagoa osatzen dutenean, jarduera normalizatua dutenean, enpresa-egitura dute, jakina, zeren eta, badakizue, kulturaren daukagun arazo handienetako bat da artista asko enpresa izatera behartuta daudela bizirik irauteko, kontratuak lortzeko... Horregatik, enpresa horietako asko ez dira enpresa bokazioagatik, beharragatik baizik; hau da, antzerki konpainia askok artista izan nahi dute, baina enpresa moduan eratzera behartzen ditugu, diru-laguntzak emateko, kontratatzeko... Baina konpainia horiek zirkuituak ezarrita dauzkaten eta ibilbide bat eginda, eta ildo artistiko definitu bat, orduan, Kultur Industrien Institutuarekin harremanetan hasten dira. Beraz, zirkuituak dira osagai batzuk, zeren eta Katalunian, badugu ekoitzi eta programatu egiten duen ekimen pribatua, batez ere Bartzelonan biltzen dena. Eta gero, gainerako ekimen guztiak, ekimen publiko programatzen direnak, udalen esku daudenak. Horiek dira, gaur egun, zabaltzen doazen zirkuituak. Zuzendaritza Nagusira jotzen dute eta Zuzendaritza Nagusiak laguntza ematen die.

ICIC delakoari buruz hitz egingo dizuet. Puntu honetan zentratu nahi dut; ez dizuet hitz egingo Kultura Sailak arte eszenikoetarako daukan politika guztiaz, Kultur Industrien Institutuak daukan politikaz baizik.

▪ ICIC eta enpresak.

ICIC delakoa aspalditik dago, lehengo gobernuarekin ere bazegoen, eta batez ere edizio arloan ziharduen: argitaletxeak, zinea eta telebista. Gobernu aldaketarekin eta antolakuntza berri honekin, ICICek garrantzi handia hartu du kultura eta artearen sisteman. Lehen ez zituen zenbait eskumen ICICera eskualdatu dira. Eta hiru arlo antolatu ditugu ICICen: edizio eta prentsa arloa; ikus-entzunezkoen arloa (zinea eta telebista); eta sortu berri den antzerki, musika eta ikus-entzunezkoen arloa. Arlo tematikoak deitzen diegu horiei. Gero, beste arlo bi sortu genituen, zehar-arloak deitzen ditugunak; arlo horiek funtsezkoak dira, 3 arlo tematikoak elikatzen dituztelako. Bat da Nazioarteko Proiektzioa, eta bestea, Enpresa Garapena. Horixe da ICICen egitura; horrez gain, gerentzia arloa dago, jakina; baina horretaz ez dut hitz egingo, antolakuntza mailakoa baita.

Ongi, ba, honetantxe geldituko naiz: antzerkia, musika eta arte bisualetan, horixe baita interesatzen zaiguna. Arlo honen nondik norakoa jakin dezazuen... Nortzuk izango lirateke antzerkia, musika eta arte bisualetako solaskideak? Antzerkian, adibidez, konpainiak, ekoizpen enpresak, ikuskizun-areto pribatuak, ekoizpen propioa duten aretoak eta ADEPCA eta SIATRA profesionalen elkarteak dira; horixe da ICICen daukagun harreman-esparrua. Musikari dagokionez, musika zuzenean programatzen duten aretoak, diskoetxeak, jaialdiak edo musikaldiak antolatzen dituztenak. Eta arte bisualei dagokienez, batez ere, arte-galeriak.

Ekonomia arloa. Arlo honetarako 10 milioi eta erdi euro inguru daude esleituta. Hori da antzerki, musika eta arte bisualetarako kudeatzen duen diru-kopurua. 10 milioi eta erdi euro horiek diru-laguntzetarako erabiltzen ditu. Guk ez daukagu inolako helburu-programarik, ez daukagu ekipamendurik, hau da, hemen ez dago antzerki nazionalaren aurrekonturik, hemen ez dago "L'liure" antzerki taldearen aurrekonturik edo "Liceo"-ri egiten zaion ekarpenik. Hiru diziplina ditugu honen barruan; beraz, 5 milioi eta erdi euro antzerkira bideratzen dira, 4 milioi musikarako eta arte bisualetan milioi bat inguru.

Kontsiderazio orokor batuk egin nahi nituzke, diru-laguntzei buruz hitz egiten hasi aurretik. Horrela errazago ulertuko dugu zergatik egiten ditugun politika batzuk eta beste batzuk ez, edo politika jakin batzuk egitea nondik atera den.

Kataluniak, gaur egun, hainbat proposamen pribatu ditu. Arte eszenikoei dagokienez, konpainia multzo eder bat dago, eta horietako asko konpainia egonkorak eta historikoak dira. Beste zati bat, ez hain handia, konpainia egonkorak dira, baina ez historikoak; eta azkenik, baditugu konpainia batzuk, ekoizpen jakin batzuetarako osatzen direnak. Aldi berean, ikuskizunak ekoizteko enpresak ere baditugu, euren bidea egin dutenak; hor dugu, adibidez, "Bitó", formatu txiki eta ertaineko proposamenak egiten dituen ekoizpen-etxea; enpresa horrek lankidetzan estuan dihardu ekimen publikoekin, eta arrisku-proposamen interesgarriekin gainera; eta baditugu ekimen pribatuak, "Focus" esaterako, formatu ertaineko proposamenak egiten dituztenak. Bestalde, hor dugu "Vania", ekoizpen lanean eta nazioarteko elkarlan askotan ari dena. Beraz, baditugu ekimen pribatu bat nolabaiteko pisua duena. Horrez gain, baditugu areto pribatuak, programazio egonkorra eta ekoizpen propioa dutenak: alde batetik, hor daude zazpi areto alternatiboak –oraingoraino areto alternatibo deitzen zaie, baina nik uste dut formatu txikiko aretoak direla, eta alternatiboak dira hirian daukagun beste ekimen batetik sortutakoak-, eta bestetik, "Teatro Romea" gisakoak; areto hori fundazio baten esku dago eta, ikuskizunak emateaz gain, ekoizpenak ere egiten ditu, oso ildo interesgarri eta koherentean. Hor daukagu "Villarruel", ekoizpenak egiten. Hor daukagu "Victoria", ekoizpenak egiten, konpainia batzuk dituelako lanean. Gure ustez, ekoizpen pribatu egonkor

xamarra daukagu. Ohartu behar duzue, egonkortasunaz ari naizenean, aretoko antzerkiaz ari naizela batez ere, zeren eta izatez badira beste ekimen batzuk, baditugu kaleko antzerkia edo gaur eguneko zirkua egiten duten konpainia historiko batzuk; baina halakoak gutxiago dira aretoko antzerkiarekin alderatuta.

Gainera Katalunian badago sektore bat oso ondo egituratua. Elkarte profesionalak esan nahi dut, elkarte profesionalen lana egiten dutenak. Esaterako, ADEPCA, antzerkiko enpresarien elkarte; administrazioen solaskide izan ohi da, eta negoziatu eta gauzak lortzen ditu. Profesionalen elkarte den aldetik, komunikabideekin negoziatu eta akordio onuragarriak lortzen ditu edo sektorearekin negoziatu eta hitzarmen bat lortzen du, erreferentzia esparrua den sektoreak onartu eta adostua. Eta, adibidez, hitzarmen horretan jartzen du: "entsegua hainbeste ordaindu behar da, emanaldia hainbeste; 200 jarleku baino gutxiagoko areto batean bazaude, B soldata kobratu behar duzu eta honenbeste da..." Hori guztia badago.

Dantza, kaleko Arteak, Zirkua. Ez dituzte baldintza berak, ez daude maila berean, ez enpresa-garapenari begira, ez iraunkortasunari begira, ezta lan-garapenaren aldetik ere. Egia da, ez daude maila berean. Gure politika da babesa ematea, desberdintasunik egin gabe. Ez da erraza, baina horretan ari gara. Ekimen pribatu indartsua Bartzelonan dago. Bartzelonatik kanpo ez dago ia bat ere, eta horrek kezka sortzen digu. Badakigu zaila dela; Bartzelonak badu publiko-dentsitatea eta erakartzeko gaitasuna ekimen pribatua horretan sartzeko, bistakoa baita ekimen pribatuari kontuak atera behar zaizkiola... eta, jakina, biztanle gutxiagoko hiri batean zailagoa da hori. Horregatik, areto pribatuen antzerki ekimen gutxi dauzkagu lurraldetik kanpo; eta konpainienak badira, baina oso gutxi.

Azaldutako egoera horretan, esango nizueke, Kataluniako kultur ekimenen %90 Kultura Sailak eta ICICek lagundutakoak direla gaur egun. Zer laguntza-mota? ICICen ustez, enpresei buruz ari gara, eta horregatik 3 laguntza-mota ditugu diseinatuta, ezarrita eta martxan: Lehena, mundu guztiak ezagutzen duena, funts galdurako diru-laguntzak. Ez zait izen hori gustatzen, baina ulertzen da. Proiektu bati diru-laguntza ematen diozu eta trukean proiektua gauzatzea eskatzen duzu. Sistema hau aspaldikoa da eta ICICen ere badago. Gero badago beste sistema bat, arrisku-funtsa deitzen zaiona. Ideia honekin maiteminduta gaude, hau da, joera aldaketa funtsezkoa gertatu da; beraz, aurreko diru-laguntzatik beste honetara pasatu gara. Industria diren aldetik, horixe da gure helburuetako bat. Behin eta berriz aipatuko dut gauza bera, batez ere Generalitatearen politika zabalagoa delako. Arrisku-funtsa kultur proiektu baten aurrean jartzen dugun diru-laguntza mota bat da; laguntza behar du, baina proiektu horrek dirua itzuli behar du. Eman dezagun "del bol-da val" konpainia gugana etorri eta esaten digula: "Marisel" ikuskizuna

berriz muntatzeko asmoa daukagu...” Zifra batzuk asmatuko ditut, esate baterako, “milioi bat euroko aurrekontua dauka eta uste dugu inbertsioa berreskuratuko dugula, baina ez daukagu aurrera jotzeko behar den diru hori”. Horren aurrean aukera bi dauzkagu: beti egin dena, diru-laguntza. Eta bestea, esatea: “Lagunduko dizuegu, baina gehienez ere, zuek ipintzen duzuenaren neurrian; enpresa zarete eta hau egiten baduzue bideragarri delako izango da. Lagunduko dizuegu, baina zeuek ipintzen duzuenaren erdiraino; ez dugu zeuek baino gehiago ipiniko abentura honetan”. Orduan, gehienez ere, %50erainoko diru-laguntza ematen diegu; ez gara derrigorrez %50era iristen, baina hori da gehienekoa. Baina, hori bai, ikuskizunaren edo ekimenaren ustiapenean aurreikusita eduki behar dute ikuskizunaren salmentatik ateratako itzulkin bat Generalitatearentzat izango dela. Horrela, konpainiak aurreikusi bezala baldin badoa ikuskizuna, urtebetean inbertsioa berreskuratuko eta irabaziak sortu ahalko dituzte beste ikuskizun bati aurre egiteko. Aurreikusita zegoen bezala badoa dena eta urtebetean milioi eta erdiko diru-sarrera badute txartelen salmentatik, akabo arazoak: guri geure zatia itzuliko digute eta haiek ikuskizuna ustiatzen jarraitu ahal izango dute; ez dute galerarik izan eta aurrera atera dute euren proposamena. Arriskuari estaldura eman diogu eta gainera ondo atera zaie. Baina horrela gertatzen ez bada, -eta gerta daiteke-, eta ez badute ateratzen espero zutena... baliteke istripu batek, dantzan izandako lesio batek, ustiapena galaraztea edo publikoak ez diola uste bezain harrera ona egiten, orduan gerta daiteke oso garesti ateratzea emanaldiaren prezioa eta udalek ez erostea. Gerta daiteke eurek gauza batzuk espero izatea eta azkenean ez ateratzea. Horregatik, ustiapena ez bada aurreikusi den adinakoa, guk, diru-laguntza bihurtzen dugu itzuli ezin duzun zati hori. Beraz, arriskua gure gain hartu dugu konpainiarekin batera, gure ustez, produktu horrek merkatuan egon behar duelako: ondo badoa, ez dute dirurik behar; txarto badoa, hor daukazu dirua, baina bidea egin eta gero, ez aurretik. Horiexek dira arrisku-funtsak. Askok kostatu zaigu hori lortzea, arte eszenikoen sektorean hori sartzea; izan ere, askotan, etortzen zaigu konpainia bat euren proiektua azaltzera, eta oso interesgarria da, eta egokia iruditzen zait egiten duten planteamendua. Egia da. Orduan esaten diet: “Begira, honela lagunduko dizuegu.” Eta haiek diote: “Hara, oso interesgarria!” Eta amaitzen dugunean esaten didate: “... Eta diru-laguntza, zer?” Eta nik: “Ezetz ba, diru-laguntzarik ez dagoela!” Zuk etekina aterako baduzu, zer zentzu dauka zure etekina diru publikoz gizentzea? Ez! Diru publikoa arriskua estaltzeko dago, ez etekina gizentzeko. Irabazi hori nahikoa ez bada hurrengo ekizpenerako, hitz egingo dugu eta lagunduko dizugu hurrengo ekoizpenean, baina ez dugu laguntzarik emango beharrik ez dagoenean. Horixe da martxan jarri dugun laguntza-mota bat, egiten ari gara, eta gero eta errazagoa da konpainiekin horretaz hitz egitea. Jakina, zenbait konpainiari ez diet halakorik planteatu ere egiten; esaterako, talde txiki bat datorrenean, planteamendu ezberdin batekin, zuzendaritza berri batekin, arriskua duen proposamen kutun batekin... horiek ez dute arrisku-funtsik nahi, funts galdurako diru-laguntzara jotzen dugu. Baina Katalunian baditugu enpresak etekinak ateratzeko operazioak planteatzen dituztenak, -eta oso

ondo dago-, eta orduan, erabakitzen dugu enpresa horientzako diru-laguntza-mota bat diseinatzea. Eta hau da horrelako bat. Gero, baditugu beste laguntza-mota batzuk ere, “kultur kredituak” deitzen zaienak. Banketxe batzuekin hitzarmenak egin ditugu, kultur enpresei kredituak emateko orduan sentiberatasun berezia izan dezaten, horrek beldur handie ematen baitie bankuei. Hitzarmena egin dugu BBVA, Caixa, Caja de Catalunya eta Banco de Sabadell-ekin. Banketxe horiekin egindako hitzarmenaren arabera, zenbait kultur proiektuak kreditua behar badute lokala erosteko, lokala egokitzeko, edo liburu-denda batek bere instalazioak handitu behar baditu edo antzerki konpainia batek teknologian inbertsioa egitea pentsatzen badu ez dakit zertarako..., orduan, akordio hori daukagu; erakunde horiek modu berezian baloratzen dituzte kultur proiektuak eta horrela kredituak lortu daitezke eta ICICek ordaintzen ditu interesak.

Horiek dira, bada, Kultur Industrien Institutuan dauzkagun hiru laguntza-motak. Eta sorkuntza garaikidea eta Zuzendaritza Nagusia ez dabilta arrisku-funtsak eta kultur kredituak aurrera ateratzen; diru-laguntzaren bidetik dabilta. Gauza pare bat laguntza zehatzak aztertzen hasi aurretik. Bada gauza bat ICICen bereziki kezkatu gaituena eta kezkatzen gaituena: sektorearekin batera diseinatzea politikak. Etengabe ari gara sektorearekin bilerak egiten. Haiekin hitz egiten eta elkarrizketan. Horrek ez du esan nahi sektoreak eskatzen duen guztia egiten dugunik; izan ere, askotan sektorea urrunegi joaten da eta hau eta bestea eskatzen hasten da, eta esaten diet: “Aizue, diru publikoa ez da horretarako” eta, batzuetan esaten dute: “ez, orain denetarako laguntzak eman behar dizkidazue, ni sortzailea naiz eta kulturaren alde egiten dut lan” Ezetz, ba, ezetz. Gauza batzuetan dirua sartu behar da eta beste batzuetan ez. Oraingo lantaldeak hala erabaki duelako; oker egon gaitezke, baina gure jarraibide politikoak dira era honetako ekimenei laguntzea eta ez beste hauei. Edozein kasutan ere, konplizitate handia dago, hau da, ez dugu errealitatearekin loturarik ez duen gauzarik asmatu nahi. Eta errealitatearekin lotura izateko modua da, mahai baten inguruan esertzea ekimenak aurrera ateratzen dituztenekin, zeren eta Generalitateak horixe egiten baitu funtsean: laguntzak eman; guk ez dugu ekimenik sortzen. Ideia honekin fundazioak sortu ditugu, sortzen ari gara, gero azalduko dizuedanez. Fundazio horietan ugazaba moduan gaude; administrazio publikoak eta sektorekoak ere ugazaba moduan; horrek esan nahi du solaskidetza parekidea daukagula. Beste gauza bat ere komentatu nahi dut lehen Tonyk egin duen galderaren harira; guk erantzuna eman nahi dugu, baina aldi berean jarrera proaktiboa izan nahi dugu; hots, administrazioak gehienbat entzun egiten du eta nola erantzun behar duen aztertu. Horregatik, nire ustez, administrazioak eragiteko gaitasuna izan behar du, eta zenbait joera aldatu behar ditu. Horretan ari gara, ICICen, joerak aldatzeko politikak planteatzen ari gara. Hona hemen horietako bat: gure ustez, gaur egun Katalunian ekoizpen gehiegi dago eta merkatuak ezin du hori dena bereganatu. Horregatik, ekoizpenari laguntzeko, gutxieneko emanaldi kopurua eskatzen diegu, ekitaldi kopuru jakin bat; bestela ez dute lanik izango, ez dituztelako

kontratatu. Hasten zara apur bat aztertzen eta diozu: "Izugarrizko desoreka dago zirkuituen kontratazio ahalmena eta urtero egiten diren ekoizpenen artean". Eta esan dugu: "Oreka bilatu behar da hemen". Beraz, oreka bilatzeko politikak diseinatzen ari gara; horren ondorioz, ekoizpen gutxiagori emango dizkiogu laguntzak, baina ematen ditugunak hobeak izango dira, zirkuitu jakin batzuei lotuta egongo dira. Ildo horretan, aurrea hartu nahi diegu eskaerei eta beharrezane. Ildo batzuk ezarri nahi ditugu eta, gure ustez, hortik joan behar du arte eszenikoen garapenak.

Orain esango dizuet nola gauzatu nahi dugun hori. Zehazki, zer egiten dugun, zer laguntza dauzkagun garatuta eta norentzat. Gu, funtsean, sorkuntza zirkuituko hiru ataletan ari gara. Lehenengoa da ekoizpena; bigarrena, hedapena; eta hirugarrena, sustapena. Bistan denez, sorkuntzarik gabe ez dago ekoizpenik. Hori hala da. Ez gabilta konpainia hasiberriekin lanean, horretarako dago ICAC. Guk gauza bi egin nahi izan ditugu: batetik, ekoizten lagundu, hots, erraztasunak eman ekoizpenak egon daitezen; bestetik, sektorea egonkortu. Gaur egun, guztira, 27 akordio ditugu hiru urteko hitzarmenetan. Iaz hasi ginen horretan, aurten zehaztu egin dugu eta ez dakit zer gertatuko den aurrerantzean; oraindik ezin dugu datorren urtekoaren ikuspegirik eduki, tartean hauteskundeak daudelako. Nolanahi ere, 2007an jarraitzen badugu, gure asmoa da aurrekoen baldintzak berrikusten dituzten hiru urteko hitzarmen horiek bukatzea, hau da, hiru urteko lehen hitzarmenen ildoak hobetzea. Hiru urteko hitzarmenak hiru urterako dira, jakina, eta konpainiekin nahiz ekoizpen-enpresekin izenpetu ditugu, baita ikuskizunak eman nahiz ekoizten dituztenekin ere. Ikuskizunak eman eta aldi berean ekoizten dituen, ordea, ez da hiru urteko hitzarmenean sartzen. Sektorea nolakoa den jakiteko, hiru urteko hitzarmena duten konpainiak nolakoak diren jakiteko, hor ditugu, adibidez, "Carlos Santos" edo "Marcelie Antúnez" edo "Pen Boun"; hau esaten dizuet, ikus dezazuen zer diziplina-mota lantzen duten, zer arriskurekin jokatzeko duten eta zer neurritakoa den konpainia. Gero, badira "Comediants" edo "Fura" bezalakoak, beste neurri bateko konpainiak. Ez daukagu, adibidez, "Dagoll Dagom", orain ez dabilelako ekoizpen prozesuan; ikuskizun-sorkuntzan dabil eta gero urte bi edo hirutan ustiatzen du. "Dagoll Dagom"-ek ikuskizunak ekoiztea erabakitzen duenean, batere arazorik gabe sartuko da hitzarmen honetan. Ikusten duzue, hitzarmen hauek etengabeko arrisku-jarduera duten konpainientzat dira. Aretoak, hiru urteko hitzarmenak aretoekin; alternativa guztiak dauzkagu, "Roma" aretotik hasi eta "Villarreal" aretoraino. Egungo areto alternatibo guztiak daude hiru urteko hitzarmenean gurekin. Eta konpainia ekoizleak ere... adibidez, "Bitó", "Vania", horiek ere hiru urteko hitzarmenekin daude. Hau guztia oinarritzakoa zen guretzat, eta uste dut sektorearentzat ere bazela. Plangintza egiteko aukera ematea zen. 2005ean baldin badakizu administrazio autonomikotik zenbat diru etorriko zaizun 2006an eta 2007an, zeure plangintza egin dezakezu garapen artistikoaren arloan, baita enpresa-bolumena egituratu ere. Bestalde, konpainiek denbora gutxiago eman behar dute administrazioarekin itunak egiten, izapideak eta agiriak egiten eta administrazioetik eskatzen zaien

guztia betetzen. Urte batean egiten da hori eta hurrengo hiru urteetan ez duzu diru eske joan beharrik. Hala ere, kontaktuan jarraitzen dugu, proiektua zehaztuta dagoen moduan aurrera doan jakiteko. Beti izaten dira aldaketak, eta urtero aurkeztu behar den gauza bakarra da urte horretarako sortu den proiektua, egingo ditudan ekoizpenak, eta aurrekontu honekin, gutxi gorabehera. Sektoreak gogo onez hartu du hori eta oso pozik daude; espero dut politika horretan ez dela atzera egingo. Ekoizpenerako beste laguntzen artean ekoizpen bateratua dago. Konpainia egonkor baten ekoizpena izan daiteke, ibilbidea daukan konpainia batena edo ez; edozein kasutan ere, urtean bertan estreinatzen den ekoizpena da. Diru-laguntza eman eta gutxienerako bat eskatzen zaio. Gutxienerako hori jaitsi egin dugu: emanaldi berrien gutxienerako kopurua 10era jaitsi da orain. Izan ere, enpresa batek, kultur ekimen batek, ezin baditu 10 emanaldi egin, gure ustez, zerbait gertatzen da hor. Gerta daiteke urte batean, edozeinek dauka urte txar bat, talderik sendoenak ere kale egin dezake ikuskizun batekin. Baina behin eta berriro gertatzen denean, arazoren bat dago. Laguntza hauekin gertatu zaiguna da... lehen Eusko Jaurlaritzako arduradunak esan duen bezala, ba, oso ondo atera zaigula, eta horixe zen asmoa, zeren ekoizpen guztia eta konpainientzako diru-laguntzak hiru urteko hitzarmenen bidez lotuta daukagu, eta une honetan diru-kopuru dezentea daukagu: ekoizpenerako bakarrik milioi bat eurotik gora, gutxi gorabehera. Nori erabiltzen du ekoizpen hori? Kaleko antzerkiak, haur eta gazte antzerkiak, konpainia egonkorak ez direnak. Askotan oso gauza interesgarriak iritertzen dira hortik. Ekoizpen-poltsa hori talde horientzat da gehienbat. Zeren eta alternatiben ekoizpena, aretoena eta hitzarmena duten konpainiarena ez da hitzarmen horren bidez egiten. Horrek hazteko aukera eman digu eta zenbait proiektu, orain arte Generalitatean nekez sartzen zirenak, sartu ahal izan dira. Eta ekoizpen horietatik aparte, poltsa txiki bat sortu dugu arrisku-ekoizpenetarako. Eztabaida handia izan dugu barruan, arrisku-ekoizpenak sorkuntza garaikidearen barruan egon behar dutelako. Nolanahi ere, argi dago areto alternatiboak ekimen pribatuak direla eta ICICekin harremanetan daude. Gero eta gutxiago dute alternatibotik eta gehiago dira formatu txikiko aretoak. Beraz, funts bat osatu dugu eta "arrisku-ekoizpenetarako funtsa" deitu diogu. Horretaz baliatzen dira benetako arriskua hartzen duten alternatibak eta baldintza batzuk daude ezarrita: egilea gaztea izatea, zuzendaria gaztea izatea, Kataluniako star system horretakoak ez izatea eta abar. Orduan guk esaten dugu: "ongi da, arriskuaren aldeko apustua egin nahi duzuen alternatibak edo taldeak, Institutuan poltsa hau osatu dugu".

Horrez gain, ekoizpenaren gaia ziurtatzeko, beste laguntza-mota batzuk ere baditugu, hain zuzen ere, konpainien azpiegiturak eta tresneria teknikoa hobetzera bideratuak. Laguntza horretaz kaleko taldeak eta zirku garaikidekoak baliatzen dira gehienbat. Aretoko konpainiak ez dira laguntza horietan sartzen, ez dituzte eskatzen eta ez dira gehien estimatzen dituztenak. Zirkuko

taldeek, ordea, bai; furgonetak edo kamioiak erosteko, trapezioan inbertsioa egiteko eta abar, laguntza horietara jotzen dute.

Hedapena. Nola lantzen dugu hedapena? Alde batetik, programazioa izanik hitzarmenean ez dauden aretoentzako laguntzak ditugu; ikuskizunak hartu edo erosten dituzten aretoentzako laguntzak dira, euren programazioari laguntzeko. Urtean gutxieneko ikuskizun kopuru bat eta hizkuntzaren kontua eskatzen diegu. Azoka eta merkatu espezializatuak antolatzekeo laguntza ere badugu. Beste leku batzuetan ez dakit, baina Katalunian jaialdiak edonon: harri bat altxatu eta jazz jaialdia, beste harri bat altxatu eta antzerki jaialdia. Orduan guk esan dugu: "Ez, ez, ICICek azokak eta merkatu espezializatuak lagunduko ditu, ez jaialdiak; jaialdiak Zuzendaritza Nagusiak laguntzen ditu, udalei emandako diru-laguntzen bidez". Salerosketa dagoen edozein gune babestu eta lagunduko dugu. Zer egin dugu hor? Bada, esan dizuedana; orain arte, udal batek ekimen bat zeukanean, esaterako, Tárregak azoka dauka, Vic-ek musika biziaren merkatua, esan bezala, orain arte udalari diru bat ematen zitzaion, udala aipatzen zen eta udalak antolatzen zuen. Guk, ordea, esan dugu: "Hori, ez, hori ez da horrela egin behar!" Askotan udalak nahastu egiten ditu oso gauza ezberdinak eta espazio bat jai-gune eta merkatuaren arteko nahaste bihurtzen du; eta udal taldean nortzuk dauden, jai-giroa gehiago edo gutxiago nabarmenduko da. Beraz, guk zer egin dugu? Fundazio batzuk sortu. Fundazio horiek pribatuak dira, baina bertan dago azoka hartzen duen udala, eta Generalitatea ICICen bidez, eta sektorekoak ere gonbidatzen ditugu. Esate baterako, Tárregan, "CIATRA", "ADEPCA", aktore eta zuzendarien elkarteak eta beste batzuk gonbidatu ditugu; hau da, botoa duten ugazabak dira eta fundazioak lan-ildoak zehazten du, ez programazio artistikoa; hori zuzendari artistikoaren lana da eta horretarako askatasuna dauka. Baina kontua da zein den azokaren lan-ildoak.

Bada beste gauza interesgarri bat egiten ari garena; oraindik ez du eman guk espero genuena, baina denbora kontua dela uste dut. Katalanez estreinatutako ikuskizunak beste hizkuntza batzuetara egokitzeko laguntzekin hasi ginen. Katalunian testua duten ia antzerki ekoizpen guztiak katalanez dira. Portzentaje oso altuan gainera. Baina zer gertatzen da konpainia batek ikuskizuna katalanez egiten duenean? Hortxe gelditzen da, badakizue non dauden mugak. Orduan, gure ustez, Kataluniatik kanpora irten behar da eta horretarako "beste hizkuntza batzuetara egokitzeko" ildo bat hasi dugu. Beste hizkuntza batzuk esaten dugunean, gaztelania izan daiteke, edo swahilia. Berdin zaigu nora doan konpainia hori. Nola laguntzen diegu? Egokitapenean laguntzen diegu, testua berriz pasatzeko behar dituzten 15 edo 20 egun horiek, zuzendaritzan egin behar diren ukituak. Kontzeptu hauen arabera: aktoreen eta zuzendariaren nomina; iaz gutxieneko zirkuitua eskatzen zitzaion horretarako. Konpainia batek laguntza eskatzeko, gutxienez 15 emanaldi egin behar zituen kanpoan eta hizkuntza horretan. Orduan

aldaketa bat egin genuen, konpainiek berek eskatu zigutelako, eta uste dut arrazoi osoa zutela eta interesgarria da: laguntza emango zaie, zirkuitu aukera badute edo azoka batera gonbidatzen badituzte, baldin eta leku horretan zirkuitu bat hasteko aukera badago. Beraz, azoka baterako gonbidapena jasotzen badute eta han katalana ez den hizkuntza batean aurkeztu nahi badute, laguntza ematen zaie.

Sektoreko elkarteentzako laguntzak dauzkagu, ikusleak leialtzeko eta publiko berriak sortzeko proiektuetarako. Gure ustez, erabat funtsezkoa da euskarria ez ezik ekoizpena ere asko lantzea, baina gero jendea ez badoa antzerkira... Aurten sustapen-lerro bat zabaldu dugu sektoreko profesionalentzat, eta helburu hauek ditu: ikusleak leialtzea eta publiko berriak sortzea. Sustapen-lerro hori ez da konpainia jakin baten proiektu baterako, arte eszenikoen ikuspegitik lan egingo duen proiektu baterako baizik. Gero, baditugu azpiegituretarako laguntzak ere. Bartzelonatik kanpo dauden aretoetarako laguntzen bila gabiltza, hor egon ezean babesik gabe geratuko baitira. Aurten diru-laguntza mota bi dauzkagu: Bartzelonakoak, Partzuergoaren bidez, eta Bartzelonatik kanpokoak, diru-laguntza lerro baten bidez. Esan behar dizuet Partzuergoaren ekimenak bazeramala lau urte ni iritsi nintzenean. Bartzelonako areto pribatuek ebaluazio ezin hobea egin dute Partzuergoaren lanari buruz: azpiegiturak hobetu eta, batez ere, segurtasun kontuak hobetu. Harrigarria da benetan. Ikerketa bat egin da eta antzokien %25 aztertu dute segurtasun kontuetan; lau urtean %70, ia %80 hornituta daude. Laguntza ukaezina da hori antzerki enpresentzat. Komunikazioari dagokionez, beste laguntza-sail bat daukagu. Eta hauek dira: Hitzarmenak egin ditugu irrati-telebista autonomikoarekin eta orain estatuko hedabideekin ari gara hitzarmenak bideratzen. Hitzarmen horien helburua ez da kultur enpresentzako prezio merkeak lortzea, publizitatea erostea baizik; gero, publizitate hori komunikazio proiektu interesgarria aurkezten diguten enpresei ematen diegu, astero faldioen bidez eman dezaten. Bestalde, akordioak egin ditugu egunkari batzuekin liburu irakurrienen zerrenda argitara dezaten, Katalunian ekoiztutako liburu irakurrienak eta gehien entzuten diren musikak. Orain borrokan ari gara antzerkiarekin gauza bera egin dezaten... izarren kontu horrekin. Beraz, hainbat akordio egiten ari gara komunikabideekin, kultur kontsumoari buruzko informazioa eguneroko kontua izan dadin, beste edozein informazio bezala. Programazioaren barruan badaukagu bat nazioarteko proiektzioa hartzen duena; lehen esan dizuedan bezala, guk lantzen duguna da ICiCi dagokion kultur esparruan lan egiten duten enpresak nazioarteko foroetan egotea, eta bai azoka batean egon nahi duten konpainia edo enpresentzako laguntzak ere. Guk ez dugu hegaldia ordaintzen; bai, ordea, enpresa batek esaten badigu: "Azoka honetara joan nahi dut, stand bat eduki, halako eta halako jarduerak egin nahi ditut". Hori bai, ordaintzen dugu. Askotan egiten duguna da "aterki" stand bat jarri, -hala deitzen diogu-, nahi duten konpainia guztiak bertan egon daitezen, kontaktuak eta trukeak egin, batzarrak egiteko lekuak muntatu eta abar.

Eta azkeneko kontua, oso garrantzitsua, zirkuituei laguntzen hastea izan da. Konturatu ginen ekoizpena asko lantzen dugula, laguntza ugari ematen dugula ekoizpenerako, ekoizteko gaitasuna duten enpresak egonkortzeko; baina gero, irtenbiderik gabe aurkitzen ziren. Bada, arlo horretan, ekimen bati hasiera eman diogu Zuzendaritza Nagusiarekin batera, hura baita udalekin lan egiten duena; ekimen hori udalei laguntzak ematea da, egiten duten programazioaren arabera. Izan ere, ikusi dugunez, udalek arrisku gutxiko kultur programazioa egiten dute gaur egun; arrakasta komertziala eta publikoarena ziurtatu nahi izaten dute beren programazioekin. Udalei laguntzeko beste modu bat diseinatzen ari gara; ez dugu honelakorik nahi: "Programazio artistikoaren %30 diruz lagunduko dizugu. Ez! Beharrezkoa bada, %40 lagunduko dizugu, - baina era honetako ikuskizunak programatu behar dituzu. % 20, honelakoak programatzen badituzu, eta ezer ez, beste horiek programatzen badituzu. Programazioak eusteko modukoa izan behar du."

Horrez gain, konpainiekin hitz egiten hasita gaude aste barruko zirkuituak zabaltzeko Bartzelonatik kanpo. Eta zer aurkitzen dugu? Bartzelonan asteartetik igandera bitarteko programazioa dago. Bartzelonakoa asteartetik iganderakoa da, batez ere, larunbatekoa. Konpainiekin eta tamaina bateko udalekin hitz egiten ari gara, ekipamendu bat dutenekin, ondo hornituta daudenekin, alegia; aste barruko programazioa hartu dezaten, konpainiarentzat eta antzokiarentzat arrisku ekonomiko txikikoa eta gure ekarpena ipinita. Baldintza horiekin esango diogu konpainiari: "Prest zaude, astearte-asteazkenetan edo asteazken-ostegunetan, saldutako txartelen truke joateko? Ondo ateratzen ez bada, badago diru bat zorra zuk ez ordaintzeko, eta udalak azpiegitura jarriko du, eduki badauka eta." Beraz, moduren bat hezuramitu nahian gabiltza, ea zirkuituak aztertzen ditugun eta konpainiek aukerarik ba ote duten beren proposamena publikoaren aurrean probatzeko, horrexen premian gaude eta. Eta amaitzeko, esan nahi dut, honetaz gain baditugula laguntza-proiektu interesgarriak; esate baterako, Bartzelonako "Now Borris". Gaur egungo zirkuaren arloan dihardu lanean, etengabe eta koherentziaz. Bestalde, haur eta gazte antzerkirako areto bat sortu dugu udal batekin lankidetzan. Ezohiko ekimen interesgarri hori hiru urtetik gorako haurrentzat izango da eta Italiako hiri batean ari dira lantzen. Beraz, honelako ekimenei ere sostengua ematen diegu hiru urteko hitzarmenen bidez.